

Arrasateko EH Bilduren oharra

Udalbatzaren azkeneko bilkuran, gobernuko kargu baten kontra jarritako salaketa dela eta, gertatutakoaren ondoren, Arrasateko EH Bilduren udal taldeko kideok honako hau adierazi nahi dizuegu herritarroi:

- Gogor gaitzesten ditugula Oscar García zinegotziak Udalbatzako bi hautetsiren aurka jaurtitako difamazio, irain eta mehatxu pertsonalak. Gure elkartasun eta babes osoa daukate.
- Ez ditugula inondik inora onartzen EAJko bozeramaile Anuska Ezkurrak, salaketa matxistaren berri izan zenetik gaurdaino, bere alderdiak izandako utzikeria zuritzeko eman zituen azalpenak, errealitatearen manipulazioan oinarritu zituelako.
- Erabat salatzen dugula Maria Ubarretxena alkateak bilkuran erakutsitako jarrera arduragabea, isiltasun konplizez baimendu eta babestu zuelako García-ren jokabidea. Dena omen da zilegi bere gobernuari gehiengoz agintzeko ahalmena ematen dion bitartean”.